

erantzuguazu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Non dago baserriaren etorkizuna?

■ **Nik Bermeoko** kasua ezagutzen dudanez, hari buruz hitz egingo dut. Bermeo herri arrantzalea da eta baserriaren egoera nahiko txarra da. Nire ustez, elkarlana bultzatu behar dugu; lehengo erara lan egin behar dugu, baina plangintzak landu behar dira etorkizunerako: zein ongari erosi behar diren, nola lortu laguntzak, makineria

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

erosteko eta erabiltzeko... Gauza horietarako elkarlana beharrezkoa da. Bestalde, barazkiak edo esnea batzerakoan garrantzitsua da denak batera biltzea eta toki beretan jasotzea hiri handietara zabaltzeko. Bermeon edo Mundakan etxe-

rik etxe saldu behar-ko lirake eguneko esnea eta barazkiak, baina elkarlana bultzatuaz, bai okinarekin edo egunkari banatzailearekin koordinatuz. **Jose Luis Ormaetxea** (Bermeo)

■ **Baserriak aurrera egingo badu**, horretarako

herri txikiak bultzatu behar dira. Eta herri txikiak bultzatuko badira, hainbat zerbitzuz hornitu behar dira herri horiek: garraio publikoa, ikastetxeak, postetxeak... Bestela, herri horiek hilez joango dira, eta haiekin batera baserria. Eta eskola txikiak itxiz joatea oso neurri txarra dela iruditzen zait niri. **Maria Azpitarte** (Beasain)



galdeiozu...

Txillardegia

IDAZLEA

Ribaforada Euskal Herria da?

Xabier Zabaltza [Iruñea]



■ **RIBAFORADA NAFARROA DA.** Eta Nafarroa Euskal Herriak sortu duen Erresuma nagusiaren izena da. Ertaroan aipatzen zen *lingua navarrorum* delakoa euskara da. Eta Ebro ibaia Baskoien ardatza izan zen (Kaskante, Kalagorri). Baina Erribera oso eskualde aberatsa izanik, etorkin askoren helburu ere izan da betidanik: Tuterako meskita Europako handienetakoa izan zen. Geroari buruz, Ribaforada ondoan Fontellasko ikastola dago, erriberatarrek eraikia.

Martxoaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEKO
LEHENDAKARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.

Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Aments bat egin dut (M. Luther King)

Aments bat egin dut nun Iphar eta Hego Euskal Herriko bi erakundeek uzten baitzituzten armak.

Aments bat egin dut nun Garzon-eri manatutako jokotriak salatzen ginituen abertzale guztio-
k mundu zabalari.

Aments bat egin dut gure aurkako probokoazioak igorriak dituztener itzulikatu ginintuzkeela munduko opinioia lekuko hartuz.

Aments bat egin dut nun kale borrokalariak kurduen gisian elgar kadenaturik zauketela enbasadoren atheer.

Aments bat egin dut nun gure preso guztiak askatuak baiziren.

Aments bat egin dut nun gure izpirituetan beste edozoin nazio-
erresumatako gizartea baino aixe gehiago independente izango

ginela, papelan ez izana gatik ere.

Aments bat egin dut nun 3 euskal lurraldeen lotura lorturik ginuela. **Eric Etchamendy** • Mithirine (NAFARROA BEHEREA)

Intentsitatearen gorabeheraz

Intentsitatearen gorabeherak (I). Lehengo batean, Amara Berrin genbiltzan Tomas Alba kalearen bila, hantxe konpondu behar omen zigutelako ordenagailuko osagarri bat. Buelta batzuk emanik, udaltzainari galdetu genion eta hark ere, ezetz. Telefonoz norabait deitu eta... ziria sartu omen zigula haraino bidali gintuenak: Gregorio Ordoñez kalea

bazela, baina Tomas Alba izenekorik ez.

Ez da posible, ordea: Tomas Alba Donostiako Udaleko zinegotzia ez al zuen AAA, ATE, Batallón Vasco-Español edo horrelako indar armatu batek tiroz akabatu, duela hogeitaka urte? Intentsitatearen gorabeherak (II) Politikaria kezkaturik dabil, nonbait, «intentsitate apaleko» terrorismoarekin. Terrorismo bakarraz zer den ondo ikasi omen dugu kazetariak (gehiene) ezarri dizkiguten adibideei esker. Ez dakit bidezkoa den hemen kontu hau planteatzeko, hots, gizartea gerrarako bakarrik edo bereziki prestatzen duen kazetariarena ez ote den terrorismoa, izua generalizatzea helburu nagusi duela, bere emaitza edo mozkinak epe motz

zein luzera koantitatibo eta koalitiboki handiagoak izaki. Nola nahi ere, biktima ofizial izan ez garenok oraindik ez dakigu nola deitzen zaizen goizeko hiruretan hogeia guardia zibil etxean armaz josirik sartu, etxeko guztiak enkainonatu, etxea —bertakoak kanpoan utzirik— goitik behera miatu, lekukoen bila joan, etxea berriro ere arakatu, ezer aurkitu ez... horrelako bizialdiei, hitz batez.

Intentsitatearen gorabeherak (III) Mesedez, molestia handia ez bada eta hemerrotekan nahikoa informazio zehatza duzue, zehaztuko al diguzue beste aldeko (GAL, ustelkeria, 23-F, Estatuaren biolentzia legitimoa, etab.) zenbat preso dauden? Nola «inor ez»? Ez da posible!

Ez ote da hau bi nazioen, edo nazio baten eta bi estaturen arteko gerraren bereizgarria? **Edorta Agirre** • ZUBIETA [Gipuzkoa]

• MONTXO •

